

Bergarako Musika Eskola eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena, 2021ko irailaren hamarrean "Bikote Nagusientzako XXXVI. Dantza txapelketa Moises Azpiauren oroimenez" egiteko betebeharrak jasotzen dituen

Bergaran bi mila eta hogeiko abuztuaren 30ean

BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, NA 72.581.398-E, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako San Martin Plaza 1ean egoitza izan eta P-2007900-J IFK duen Bergarako udalaren ordezkari, M^a Concepción Ugalde Izeta Udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, Iker Badiola Etxaburu, NA 72.578.679V duena, Bergarako Espoloia kalea 1ean egoitza izan eta G20137931 IFK duen Bergarako Musika Eskola elkartearen ordezkari.

ADIERAZI DUTE

1. Irabazi asmorik ez duen Bergarako Musika Eskola elkarteak 2021ko irailaren 10ean, ostiralez arratsaldeko 19:30ean "Bikote Nagusientzako 36. dantza txapelketa Moises Azpiauren oroimenez" antolatu nahi duela adierazi ondoren, egun horretako egitaraua eta 3.350€ko aurrekontua aurkeztu eta Udalari laguntza eskatu diola.
2. Bergarako Udalak positiboki baloratzen duela ekintza hori Bergarako hirigunean jai giroa jarri, inguruko jendea erakarri eta dantzari lotutako kontestuan kanpoan Bergararen izena zabaltzen duelako.
3. Alkateak 2021ko abuztuaren hogeita seian emandako dekretu baten bidez erabaki duela laguntza ematea, 3.350€ko diru ekarpena barne, eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, ondorengoak izanik

KLAUSULAK

Lehen.- Bergarako Musika Eskolak 2021ko irailaren 10ean, ostiralean arratsaldeko 19:30ean, Seminarixuan "Bikote nagusientzako 36. dantza txapelketa. Moises Azpiauren oroimenez" antolatzeko eta Udalari aurkeztu dion egitaraua aurrera eramateko konpromisoa hartzen du. Egitaraua eta aurrekontua bi aldeek sinatuta hitzarmen honi erantsen zaizkio.

Bigarrena.- Bergarako Musika Eskolaren betebeharra izango da lehenengo puntuan jasotako egitaraua aurrera eramateko beharrezkoa den guztia egitea, ez badu udalak espresuki hitzarmen honetan bere gain hartu, eta horretarako konpromisoa hartzen du. Horien artean honako betebeharrak hauek izango ditu:

- Bergarako Musika Eskolak Bergarako dantza txapelketarako kontratatu dezakeen pertsonal teknikoaren lansariak, gizarte segurantzako gastuak, eta baita horien dietak eta alojamendu gastuak ere, horrelakorik egonez gero.
- Ikuskizunerako beharrezko diren pertsonalaren eta materialen garraio gastuak.
- Ikuskizuna aurrera eramateko beharrezko diren elementu guztiak.

Hirugarrena.- Bergarako Udalak egitaraua aurrera eramateko 3.350€ko diru-ekarpena egiteko konpromisoa hartzen du.

Diru-ekarpen hori bi zatitan ordainduko zaio. Lehenengo onartutako diru-ekarpenaren %60 ordainduko zaio (2.010€), hitzarmen hau sinatu eta Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan Bergarako Musika Eskola egunean dagoela egiaztatu ondoren. Hitzarmen honekin batera Bergarako Musika Eskolak baimena ematen dio Bergarako Udalari agiri hauek egiaztatzeko. Bigarren zatia, %40, (1.340€) jasotzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu Bergarako Musika Eskolak:

- Gastuen balantze orokorra, izandako diru-sarrera eta gastuak jasotzen dituela.
- Gastu horiek frogatzen dituen txosten ekonomikoa, faktura originalekin edo faktura originalen kopia konpultsatuekin osatutakoa.
- Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, etab.).

Laugarrena.- Udalak halaber, Bergarako Musika Eskolaren eskura ondorengo bitartekoak txapelketa egunerako jartzeko konpromisoa ere hartzen du:

- Aretoa uztea eta laguntza teknikoa ematea.
- Dantza txapelketa aurrera eramateko soinu ekipoa eta teknikariaren laguntza.
- 6 mahai eta 6 aulki.
- Atrila aurkezlearentzat.
- Ikurriña eta bandera, osoko bilkura aretotik hartzea dantza askatuko txapelketarako, eta txapelketa bukatu bezain pronto zeuden tokian uztea.
- Txapela eta zapia irabazleentzat.
- 2 lore zentro.
- Tela beltza epaimahaikoen eta garaikurren mahaiak estaltzeko.

Bosgarrena.- Elkarrekin egindako publizitatean Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du.

Seigarrena.- Txapelketa amaitzen denetik kontatzen hasita, gehienez ere bi hilabeteko epean, lagundutako jardueren balorazioa eta hitzarmeneko 3. puntuan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko ditu Bergarako Musika Eskolak.

Txosten ekonomiko horretan Bergarako Musika Eskolak dantza txapelketa honetarako izandako bestelako diru-sarrerak ere agertu beharko dira. Beraz, baliabide propioekin lortutako diruarekin eta Udalak edota beste entitate batzuk emandako diru-laguntzarekin Bergarako Musika Eskolak gastua baino diru sarrera handiagoa lortuko balu, Udalak eskubidea izango du era berean diru-ekarpen osoa edo zati bat itzultzea eskatzeko, edo diru-ekarpenaren bigarren zatia eman gabe utzi edo partzialki emateko.

Txosten ekonomikoan justifikatutako gastua aurkeztutako aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa balitz, Udalak eskatu ahal izango du diru-ekarpenaren zati bat itzultzea. Gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa balitz, ordea, Udalak ez du diru-ekarpen berririk emango.

Udalak diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Zazpigarrena.- Bergarako Musika Eskolak halaber, ondorengo betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Udalak egingo dituen ikuskapenak ez oztokatzea.
- b) Bergarako Udala jakinaren gainean jartzea baldin eta Udalak ematen diru-laguntzaz gain egiten duen jarduerarentzat beste diru-laguntzarik lortuz gero.

- c) Beste diru-laguntza bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.
- d) Gutxienez lau urtez gordetzea jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak. Epe horretan, Bergarako Udalak horrela erabakiz gero, dokumentu horiek aztertu ahal izango ditu.

Zortzigarrena.- Udalak emango duen diru-ekarpenez gain, helburu bera duen beste edozein diru-ekarpen ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diru ekarpena ematen den jardueraren kostua baino.

Bederatzigarrena.- Diru-ekarpena emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Hamargarrena.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:


- a) Diru-ekarpena bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Hamaikagarrena.- Kontratu honetan aurreikusita ez dagoen guztia, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa eta Bergarako aurrekontuetako udal araua aplikatuko dira.

Hamabigarrena. - Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Hamahirugarrena .- Bergarako Musika eskolak hitzarmen honen garapenerako antolatutako edo egindakoetan kalteen erantzule Bergarako Musika Eskola bera izango da eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen dute bi aldeek.

Eta adostasun frogagisa, bi aldeek dokumentu hau hirukoiztuta sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.



IDAZKARIA
Mª Concepción Ugalde Izeta



ALKATEA
Gorka Artola Alberdi



MUSIKA ESKOLA
Iker Badiola Etxaburu



BIKOTE NAGUSIENTZAKO 36.DANTZA TXAPELKETA

"Moises Azpiazen oroimenez"

BERGARA 2021-09-10

AURREKONTUA	
*Sariak	550 €
1.Saria	200 €
2.Saria	180 €
3.Saria	170 €
*Bikoteentzat dietak (125€)	1.500 €
*Epaimahaikoa (4*70€)	280 €
*Garaikurrak	510 €
*Aurkezlea	100 €
*Dekorazioa/Kartelak	60 €
*Trikitilariak	350 €
Bergarako Txistulari Banda	Udala
Zapia eta Txapela	Udala
GUZTIRA	3.350 €

Bergaran, 2021ko ekainaren 10ean

Sinadura:

Bergarako Musika eta Dantza eskola



